

Hezkuntzako gastua Euskal AEn % 0,2 hazi zen 2020an, eta BPGren % 5,8 izan zen

Biztanleko, 1.887 eurokoa izan zen, 2019aren antzera, baina 2018an baino % 3,1 handiagoa

Euskal AEn 2020an egindako hezkuntzako gastu osoa % 0,2 hazi zen, 2019aren aldean, Eustatek emandako datuen arabera. Hezkuntza-sektorea, gainerako jarduera guztiak bezala, 2020an COVID-19ak eragindako krisiaren eraginpean egon da. Hezkuntza-tasa hori eta BPGren bilakaera negatiboa –% 9,6 egin zuen behera– kontuan hartuta, hezkuntzako gastua BPGri dagokionez % 5,8koa da; alegia, ehuneko 0,6 puntu egin du gora, 2019aren aldean.

Gastu osotik, 3.978 milioi gastu arruntari dagozkio eta 174 milioi kapitalaren eraketa gordinari (inbertsioa). Biztanle bakoitzeko, hezkuntzako gastua 1.887 eurokoa izan da.

Hezkuntzaren Kontuak jasotzen ditu hezkuntza-erakundeetan nahiz beste edozein ikastetxe edo enpresa motatan egin diren eta iturri publiko edo pribatuak finantzatu dituzten hezkuntza-jarduera arautu zein arautu gabeetan egindako gastu arrunta eta kapital-gastua.

Hezkuntzako datu eta adierazle nagusiak Euskal AEn. 2017-2020

	2017	2018	2019	2020 (a)	Aldakuntza-tasa 2019/2018 (%)	Aldakuntza-tasa 2020 (a)/2019 (%)
IRAKASKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA (milaka €)	3.858.346	3.997.493	4.144.804	4.151.662	3,7	0,2
-GUZTIZKO GASTU ARRUNTA	3.730.457	3.802.770	3.967.934	3.977.699	4,3	0,2
-KAPITAL ERAKETA GORDINA	127.889	194.723	176.870	173.963	-9,2	-1,6
Hezkuntzako gastua biztanleko (eurotan)	1.771	1.830	1.889	1.887	3,2	-0,1
Hezkuntzako gastua BPGaren % gisa	5,2	5,2	5,2	5,8	0,0	0,6 (*)

(a) aurrerapena

(*) puntu porzentualak


Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua

Finantzaketa-egitura dela eta, finantzaketa publikoa % 75etik gora mantentzen da urteen serie osoan; azken urtean, 2020an, puntu bat egin du gora, % 76,9ra arte.

Hezkuntza-gastu osoa finantzaketa zuzenaren iturria.

Euskal AEn

Ehunekoa



Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua

2019ko datuen analisiak –hura da behin betiko datuak dituen azken urtea– erakusten du gastu osoa % 3,7 hazi zela, aurreko urtearen aldean, eta 4.145 milioi eurora iritsi zela. Hazkuntza gertatu zen gastu arrunta 165 milioi handitu zelako, % 4,3 2018aren aldean. Bestalde, inbertsioak 18 milioi egin zuen behera, 2018aren aldean; 2018an hazkuntza handia izan zuen, % 50etik gorakoa, inbertsio pribatua 56 milioi euroan handitu baitzen. Per capita terminoetan, gastu osoa, 2019an, % 3,2 hazi zen, eta 1.889 eurora iritsi zen.

Gastu arruntaren xehetasunak erakusten du 2019an finantzaketa publikoa nagusia dela hezkuntza-zerbitzuen gastuan (% 83,3) eta kapital-gastuan (% 58,6); bestalde, finantzaketa pribatua handiagoa da gainerako jarduera eta ondasunen gastuan (% 58,5), bertan sartzen direla garraioa, eskola-jangela, liburuak eta eskola-materiala, bai eta hezkuntza-sistemako administrazio orokorra ere.

Finantzaketa zuzenaren iturria. 2019 (%)

	FINANTZAKETA PUBLIKOA	FINANTZAKETA PRIBATUA
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	75,9	24,1
GASTU ARRUNTA	76,7	23,3
Irakaskuntza-zerbitzuak	83,3	16,7
Beste jarduerak eta ondareak	41,5	58,5
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	58,6	41,4

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua

Funtzioen araberako banakatze handiagoa eginda ikusten da Hezkuntza eta Prestakuntza Zerbitzuak gastu osoaren % 80,6 izan zirela, eta Jarduera Osagarriak (garraioa, jantokia, egoitza...), berriz, % 6,7 (277 milioiko gastua). Etxeek erositako liburuen, eskola-materialaren eta beste ondasun batzuen partidako gastua 154 milioikoa izan zen (% 3,7), eta hezkuntza-sistemako administrazio orokorrekin lotutako gastua % 1,0ekoa; bi ehuneko horiek mantendu egiten dira azken urteotan. Gastu osoan partaidetza murriztu zuten partidak honako hauek izan ziren: hezkuntza-ikerketa- eta -berrikuntzako gastua, partaidetza 0,5 puntu jaitsi baitzen (% 3,7ra arte), eta kapitalaren eraketa gordina, 18 milioian murriztu baitzen, 2018aren aldean (gastu osoaren % 4,3).


Hezkuntza-gastua guztira Euskal AEn, funtzioen arabera. 2017-2019

	2017		2018		2019	
	milaka euro	%	milaka euro	%	milaka euro	%
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	3.858.346	100,0	3.997.493	100,0	4.144.804	100,0
GASTU ARRUNTA	3.730.457	96,7	3.802.770	95,1	3.967.934	95,7
Hezkuntza eta prestakuntza zerbitzuak	3.128.160	81,1	3.180.286	79,6	3.341.771	80,6
Garraioak	43.157	1,1	42.133	1,1	44.076	1,1
Jantokia	165.970	4,3	179.749	4,5	184.812	4,5
Beste jarduera osagarri batzuk	48.677	1,3	45.895	1,1	48.146	1,2
Liburuak, eskolako materiala eta etxegoneek erositako beste ondare batzuk	142.659	3,7	148.021	3,7	154.273	3,7
Irakaskuntza Sistemaren Administrazio Orokorra	39.599	1,0	40.032	1,0	42.419	1,0
Irakaskuntzako ikerketa eta berrikuntza	162.235	4,2	166.654	4,2	152.437	3,7
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	127.889	3,3	194.723	4,9	176.870	4,3

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua

Nazioarteko konparazioari dagokionez, ELGAK argitaratutako azken datuak aztertzen dira, 2017koak. Urte horretan, Euskal AEn, Erosteke Ahalmenaren Parekotasunean (\$) neurtutako ikasle bakoitzeko gastuaren guztizkoa hezkuntza-erakundeetan 12.808koa izan zen, lehen hezkuntzatik hirugarren hezkuntzarako etapak batuta. Horrek Espainiaren (10.105), ELGAKo batezbestekoaren (11.231), EB23 batezbestekoaren (11.515) eta Frantzia (12.080) bezalako herrialdeen gainetik jarri zuen. Aldiz, Alemania (13.529) eta Suedia (14.505) bezalako azpitik. Hezkuntza-etapak kontuan hartuta, Euskal AEn ikasle bakoitzeko gastua 11.896 (\$) EAP izan zen lehen, bigarren eta bigarrenaren ondoko hezkuntzan, Espainiako (9.166), ELGAKo (9.999) eta EB23ren (10.344) batezbestekoak baino handiagoa. Hirugarren hezkuntzaren kasuan, Euskal AEn gastua 16.262 (\$) EAP izan zen, ELGAN aztertzen diren Europar Batasuneko 23 herrialdeetako (EB23) batezbestekoa (16.688 (\$)) baino txikiagoa.

Ikasleko urteko gastua hezkuntza instituzioetan (\$) EAPn. 2017



Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua eta ELGA. Education at a Glance. 2020 (2021-05-19)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62